

# Espiritu Santuaren etorrera

Beñola, Jesus'ek bere ikasleai au esan eutsen: Inok maite ba'nau nire esana beteko dau, ta nire Aitak maite izango dau, ta arengana gatorkez ta egotez aren etxean geldituko gara. Maite ez nauanak, barriz, nire itzak ez ditu aintzat artzen. Eta entzun daustazuen itza, nirea barik, bialdu nauan Aitarena da. Gauza oneik, zuekin nagoala esan dautzuedaz. Baiña neure izenean Aitak bialduko dauan Gogo Guren (Espiritu Santu) poz-emoilleak, arek irakatsiko dautzue guztia, bai ta nik zuei esandako guztia gogorazi be. Bakea izten dautzuet, neure bakea emoten dautzuet: nik damotzuet, eta ez munduak lakoa. Ez bekizue biotza larritu, ez bildurtu. Entzun daustazue esaten: Ba-noa ta banatorkezue. Maite ba'ninduzue, poztu zintekete Ni Aitagana noalako, Aita Ni baiño aundiago da-ta. Orain jazo aurretik esan dautzuet, jazo daitenean, siñistu dagizuen. Onezkeru, ez dautzuet izketa aundirik egingo. Ba-dator, bada, mundu onetako nagusia, ta Nigan ez dau zer-ikusirik. Baiña ezagutu dagiala munduak, Aita maite dodala, ta Aitak agindu eustanez, diardudala.

Orixe'k ederto: «Jainko bat besterik ez da, ots, Jainkoak zer-izan bakarra dau, baiñan iru nor-izan ditu. Au nola diteken ezin asmatu dugu. Misteriorik izkutuena da. Iru Nortzu auctan ez da bat bestea baiño aundiago, ez lenago; alare Aitagandik da Semea, ta bi Nortzu auengandik Gogo Gurena.»

Iru Nortzu oneik Jainko bat baiño izan ez arren, Aitak mundua sortu ta eratu ebala esan oi dogu, Semeak gizona deabruaren atzartetik atera, ta Gogo Guren edo Espiritu Doneak gufe biotzean grazia ixuri ta santutu. Kristok, Eleizea asmau ta atondu eban: Gogo Gurenari dagokio, barriz, mundu guztian zear zabaldu ta indartzea, arimak santu egitea. Beraz, pekatu astunean ez gagozanean, Espiritu Santua, Irutasuneko irugarren Notiña, Aitagaz ta Semeagaz bat dana, geuregan dago egotez. Au ezkutuki sakona! Ta doai bikaiña.

I. Ez egizue Gogo itzungi. — Onela inotsen Paul deunak Tesalonike'ko kristauai (I *Thess.*, V, 19). Gu-

re biotz barnea grazi, esker eta goi-argiz ornidu ta apaintzen dauana, Jainkoa hera, Gogo Deuna dogu. Era ortan gure arimea jauregi dirdaitzu egin oi da, eguzkiak izpi goriz jota-ko aurre-alde urreztatua baizen zoragarri ta eder; munduan izan ez beste gauza bat, ederrago danik.

Noiz arte dirau orrela? Pekatu astunez ezaindu ezik, beti. Pekatu ilkorrak, ostera, triskantza ta ondamentirik ikaragarriena egin daroa gure barruan; lore-baratzean ekaitz zakarrak baiño be aundiagoa: argia illun biurtu da, ederra itxusi, laguna etsai, zerua inpernu... Zoritxar aundi bakarra munduan, Jainko-adiskidetasa galtzea! Jaunaren eskuetatik urteniko sorkari gaixoak, zer egingo Aren asarrean jausirik? Inundik ete egoera larriagorik?

Inoiz sartu izan dira gizon gaiztoak, edo gudari ankerrak, kistar eleiz barrura, ta bertako ate, altara, gurutze, irudi ta abar suntsitu ta erre. Gaiztakeri baltza, deabruak berak asmau ta egiña nunbait. Erdiko mailletan jesarrita, onela dagie ga-